

268

2022

APIRILA

ABRIL

berritu

Urnietako Udalaren aldizkaria



Urnietarrek bere iritzia ezagutzera eman dute beste behin parte hartze prozesuan

La ciudadanía urnietarra se ha vuelto a implicar en el proceso participativo

231 galdetegi jaso dira aurrekontu irekien parte hartze prozesuan

Urnietako Udalak parte hartze prozesu berri bat jarri zuen abian martxoan herritarrak entzuten jarraitzeko eta 2023. urteko aurrekontuko 150.000 euro zertara bideratu erabakitzeko.

Urnietarrek haien auzo eta kaleetan hobetzeko, konpontzeko edo egiteko ikusten zituzten gauzak aintzat hartuta proposamenak aurkezteko aukera izan zuten martxoaren 9tik 27 arte. Epe horretan, 231 galdetegi jaso ziren. Horieta-tik 78 martxoaren 18an eta 19an jarri zen informazio karpan, 75 herriko puntu desberdinetan ipinitako buzoi eta kutxetan, 32 udalaren webgunean eta 46 APP-an.

221 galdetegi eman dira ontzat

Dagoeneko baieztatu da galdetegiak betteriko pertsonak Urnietan erroldatuta dauden eta 16 urte baino gehiago dituzten, eta 221 galdetegi eman dira ontzat.



Orain, jasotako proposamen guztiak aztertuko dituzte hirigintzako teknikariek, prozesuaren hasieran zehazturiko gainerrako baldintza teknikoak betetzen ikusteko. Ondoren, lehenetsi egingo dituzte, eta erabakiko dute zein proposamen egingo diren 2023. urtean.

Azkenik, harturiko erabakien komunikazioa egingo da. Horretarako, parte hartu duten pertsonen erantzun zuzena eman go zaie, informazio liburuxka bat bidaliko da herriko etxe guztietara eta prozesu guztia laburbilduko duen txostena ikusgai jarriko da Udalaren webgunean.

Se han recibido 231 cuestionarios en el proceso participativo de presupuestos abiertos

El Ayuntamiento de Urnieta abrió un nuevo proceso participativo en marzo para seguir escuchando a la ciudadanía y para decidir en qué invertir 150.000 euros del presupuesto del año 2023.

Los y las urnietarras tuvieron la oportunidad de presentar sus propuestas desde el 9 hasta el 27 de marzo teniendo en cuenta aquello que estimaban que se podía arreglar, mejorar o hacer en los diferentes barrios del municipio. Durante ese periodo se recibieron un total de 231 cuestionarios. 78 de ellos en las carpas informativas que se pusieron los días 18 y 19 de marzo, 75 en los buzones y en las urnas que se colocaron en diferentes puntos del municipio, 32 en la página web del Ayuntamiento y 46 en la APP.



Se han dado por válidos 221 cuestionarios

Ya se ha realizado la validación de los datos para comprobar si las personas que rellenaron los cuestionarios están empadro-

nadas en Urnieta y tienen más de 16 años, y se han dado por válidos 221 cuestionarios. Ahora, el personal técnico del Ayuntamiento analizará todas esas propuestas para ver si cumplen también los demás requisitos técnicos establecidos al inicio del proceso. Después, las priorizarán y decidirán que propuestas se realizarán en el año 2023.

Finalmente, se procederá a la comunicación de las decisiones adoptadas. Para ello, se dará respuesta directa a las personas

participantes, se enviará un folleto informativo a todos los hogares del municipio y se expondrá en la página web del Ayuntamiento el informe que resumirá todo el proceso.

Egapeko eta Magaleko LH6-ko ikasleek lanketa bikaina burutu dute aurten ere

Urnietako Udalak parte hartze kultura errotu nahi du herritar guztien artean, baita herriko txikien artean ere. Aurreko urtera arte, parte hartze prozesuak 16 urtetik gorako urnietarrei bideratuta egon ziren, baina, iaz, estrainekoz, lanketa berezi bat burutu zen Egapeko eta Magaleko lehen hezkuntzako seigarren mailako ikasleekin eta haien ekarpenak jaso ziren aurrekontu irekien parte hartze prozesuan.

Oso esperientzia aberasgarria izan zen, eta, aurten, jarraipena eman zaio ekimen horri. Hala, parte hartze prozesuen funtzionamendua eta helburuak azaltzeko eta proposamenek balekoak izateko bete behar dituzten baldintzak zehazteko saio pe-

dagogikoak burutu ziren martxoan ikasleekin. Hain zuzen, azalpen horiek guztiak eman zizkieten gauzaturiko saioetan Jorge Segurado Urnietako alkateak eta Mikel Pagola zinegotziak Egapeko eta Magaleko ikasleei. Halaber, aurreko urteetan onartuak eta baztertuak izandako proposamenen gaineko adibideak jarri zizkieten aurretik emaniko azalpenak adibide praktikoekin errazago ulertzeko.

Behin azalpen teoriko eta praktikoak jasota, ikastetxe bakoitzak bere lanketa propioa egin zuen. Bigarren prozesu horren barruan, ikasle bakoitzak bere proposamen konkretua pentsatu ostean, klasekideen aurren aurkeztu zuen, bere ezauga-

rriak azalduz eta suposatuko lukeen onura arrazoituz. Gero, klaseko proposamen guztien artean leheneste bat burutu zuten. Udalari ikasle guztien proposamenak helarazi dizkiote, baina ezarritako lehentasun horiek zeintzuk diren adieraziz.

Aurrekontu irekietara bideraturiko 150.000 euroetatik gutxienez 15.000 euro baliatuko dira ikasleek egindako proposamenetatik Udaleko teknikariek hautatuko dituztenak gauzatzeko. Magaleko eta Egapeko ikasleek lan sakona eta serioa egin dute aurten ere, eta Udalak zoriandu egin nahi ditu prozesuan zehar erakutsitako jarreragatik eta interesagatik, eta, baita, buruturiko lanketagatik ere.



El alumnado de LH6 de Egape y Magale ha realizado un gran trabajo nuevamente

El Ayuntamiento de Urnieta quiere arraigar la cultura participativa entre toda la ciudadanía urnietarra, también entre los pequeños y las pequeñas de la localidad. Hasta el año pasado, los procesos participativos habían estado orientados a las personas de Urnieta mayores de 16 años, pero el curso anterior, por primera vez, se llevó a cabo un trabajo específico con el alumnado de LH6 de Egape y Magale a través de los centros escolares. Así, se recogieron sus aportaciones en el proceso participativo de los presupuestos abiertos.

Fue una experiencia muy enriquecedora y este año se ha dado continuidad a esta iniciativa. Primeramente, se realizaron sesiones pedagógicas con el alumnado para explicar el funcionamiento y los objetivos de los pro-

cesos participativos y las condiciones que deben cumplir las propuestas para que sean válidas. En las sesiones celebradas participaron el alcalde de Urnieta, Jorge Segurado y el concejal Mikel Pagola, que fueron quienes ofrecieron las explicaciones. Asimismo, pusieron ejemplos a los alumnos y a las alumnas sobre las propuestas que habían sido aceptadas y rechazadas en años precedentes para facilitar la comprensión de las explicaciones previas con ejemplos prácticos.

Una vez recibidas las explicaciones teóricas y prácticas, cada centro realizó su propia elaboración. Dentro de este segundo proceso, cada alumno y alumna, tras pensar en su propuesta concreta, la presentó ante sus compañeros y compañeras, explicando sus características y razonando el be-

neficio que supondría. Después, entre todas las propuestas de la clase realizaron una priorización. Finalmente, han hecho llegar al Ayuntamiento todas las propuestas, pero señalando cuáles son las prioridades establecidas.

De los 150.000 euros destinados a los presupuestos abiertos, se destinarán por lo menos 15.000 euros para llevar a cabo las propuestas que seleccionará el personal técnico municipal entre las propuestas realizadas por el alumnado. Los alumnos y las alumnas de Magale y Egape han realizado nuevamente un trabajo profundo y serio, y el Ayuntamiento quiere felicitarlos por la actitud y el interés que han mostrado durante todo el proceso, así como por el trabajo que han desarrollado.

Bizikletak garbitzeko gunea ahalbidetu da Erratzu poligonoan

Bizikletak garbitzeko gune bat ahalbidetu da Erratzu poligonoan kokatzen den alhondigaren kanpokaldean. Bertan, bizikletak zutik egonkortzeko aukera ematen duten plaka bat, mangera eta eskuilak dituzte eskura erabiltzaileek.

Herritarrek parte hartze prozesuetan eskaturiko hobekuntzetako bat da.



Se ha creado una zona de limpieza de bicicletas en el polígono Erratzu

Se ha creado una zona de limpieza de bicicletas en el exterior de la alhóndiga situada en el polígono Erratzu. Allí, las personas usuarias tienen a su disposición una placa que permite estabilizar las bicicletas de pie, una manguera y unos cepillos.

Es una de las mejoras demandadas por la ciudadanía en los procesos de participación.



Hesia ipini da segurtasuna hobetzeko Urbita kalean

Urbita kalean hesi bat jarri da trenbideruntz ematen duen eremuan segurtasuna hobetzeko, eta bertara igarotzeko arriskua ekiditeko.

Aurreko urteko parte hartze prozesuan LH6-ko ikasleek proposaturiko hobekuntzetako bat da.

Se ha colocado una valla de seguridad en la calle Urbita

En la calle Urbita se ha colocado un vallado para mejorar la seguridad y evitar el riesgo de paso a las vías del tren.

Es una de las mejoras propuestas por el alumnado de LH6 en el proceso participativo del año pasado.

Haurrentzako ekintzak pazko astean Lekaion

5-10 urte bitarteko haurrei zuzenduriko ekintzak eskainiko dira apirilak 19-22 bitartean, Lekaio kultur etxean: eskulanak, jolasak eta abestiak, besteak beste.

Hitzorduak 10:00-13:00 bitartean izango dira egun horietan eta egunean bertan azalzearekin nahikoa izango da aurretik izena eman gabe.

Actividades infantiles en la semana de Pascua en Lekaio

La casa de cultura Lekaio acogerá entre el 19 y el 22 de abril actividades dirigidas a niños y niñas de 5 a 10 años: manualidades, juegos y canciones, entre otros.

El horario será de 10:00 a 13:00 de la mañana, y bastará con asistir el mismo día sin necesidad de inscripción previa.



Lankidetzeta hitzarmena Gurutze Gorriarekin, Ukrainako krisian laguntza humanitaria eskaintzeko

Errusiako Gobernuak Ukraina inbaditzeko egindako erasoek muturreko egoera eragin dute dozenaka heriotza, ehunka zauritu eta bonbetatik ihesi doazen pertsona askorekin.

Egoera larri horretan laguntzeko asmoz, Urnieta Udalak lankidetzeta-hitzarmena sinatu du Gurutze Gorriarekin. Udalak 3.000 euroko laguntza eskainiko dio erakunde humanitarioari, arlo humanitario-jarduerak eta proiektuak gauzatu ditzan. Horrela, eragindako herritarren sufrimendua arindu eta giza bizitza zaindu nahi da.



Convenio de colaboración con la Cruz Roja para ofrecer ayuda humanitaria en la crisis de Ucrania

Los ataques del Gobierno de Rusia para invadir Ucrania han provocado una situación límite con decenas de muertes, centenares de personas heridas y muchísimas personas que se están desplazando, huyendo de las bombas.

Con el objetivo de ayudar en esta grave situación, el Ayuntamiento de Urnieta ha firmado un convenio de colaboración con la Cruz Roja. El consistorio ofrecerá a la institución humanitaria una ayuda de 3.000 euros para llevar a cabo actuaciones y proyectos en materia humanitaria. Así, se pretende paliar el sufrimiento de la población afectada y preservar la vida humana.

Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoa Urnietarren eskura Hernanin

Hernanin kokatzen den Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoak (KIUB) doako zerbitzua eskaintzen die Hernani, Urnieta eta Astigarragako bizilagunei hiru udalek duten akordioari esker. Bulego horrek balio du herritarrei jakinarazteko nola defendatu ditzaketen kontsumitzaile eta erabiltzaile gisa dituzten eskubideak, ondasunak erostean nahiz zerbitzuak erabiltzean. Halaber, kexak, salaketak eta erreklamazioak jasotzeaz eta dagozkien organismoetara bidaltzeaz arduratzen da.

Eginkizunak

Zerbitzuaren eginkizunak hiru arlotan oinarritzen dira nagusiki:

- **Informazioa eta aholkularitza:** kontsumitzaileek egindako kontsulta guztei erantzuna eman eta haiek bideratu. Era berean, orientazioa eta aholkularitza eskaintzen da ondasun bat erosi edo zerbitzu bat kontratatu aurretik eta ondoren.
- **Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen interesak babestea:** kontsumo bule-



goan aurkeztutako, kexa, salaketa eta erreklamazio guztiak izapidetzen dira.

- **Prestakuntza:** dibulgazioaren alorrean, informazio-liburuxkak argitaratu eta zabaltzen dira.

Urnietako erabiltzaileak

2021. urtean zerbitzu honek izandako erabilera datuei dagokienez, 157 erregistro izan ziren sektoreen arabera sailkatuta eta horietatik 26 izan ziren urnietarrek bidera-

tuak. Produktu edo zerbitzuei lotutako arrazoiak aintzat hartuta berriz, 527 erregistro izan ziren eta horietatik 46 burutu zituzten urnietarrek. Besteak beste, garantien, produktu akastunen, entrega epeak ez betetzearen, fakturazioaren, publizitate engainagarriaren, muntaia desegokien, kontratua ez betetzearen eta itzulketen ingurukoak izan ziren buruturiko erreklamazioak.

Kontaktua

- **Zerbitzuaren arduraduna:** M^a Ángeles Ormazabal Otegi
- **Helbidea:** Sandiusterra 1- 20120 Hernani (Zerbitzu Sozialak eraikina)
- **Telefonoak:** 943 55 78 54 - 943 55 26 10
- **Posta elektronikoa:** marian-o@hernani.eus
- **Bulego ordutegia:** astelehenetik ostiralera 8:30-14:00

Oficina Municipal de Información sobre el Consumo a disposición de los y las urnietarras en Hernani

La Oficina Municipal de Información sobre Consumo (OMIC), ubicada en Hernani, ofrece un servicio gratuito a los vecinos y a las vecinas de Hernani, Urnieta y Astigarraga gracias al acuerdo que tienen los tres ayuntamientos. Esta oficina sirve para informar a la ciudadanía de cómo pueden defender sus derechos como personas consumidoras y usuarias, tanto en la compra de bienes como en el uso de servicios. Asimismo, se encarga de recoger y remitir las quejas, denuncias y reclamaciones a los organismos correspondientes.

Funciones

Las funciones del servicio se centran principalmente en tres áreas:

- **Información y asesoramiento:** dar respuesta y canalizar todas las consultas realizadas por las personas consumido-

ras. Asimismo, se ofrece orientación y asesoramiento antes y después de adquirir un bien o contratar un servicio.

- **Protección de los intereses de las personas consumidoras y usuarias:** se tramitan todas las quejas, denuncias y reclamaciones presentadas en la oficina de consumo.
- **Formación:** en el ámbito de la divulgación, se difunden folletos informativos sobre los temas que se plantean en la oficina.

Personas usuarias de Urnieta

En cuanto a los datos de utilización de este servicio en el año 2021, se dispone de 157 registros clasificados por sectores, de los cuales 26 fueron derivados por urnietarras. Por razones de productos o servicios, se hicieron 527 registros, de los cuales 46

fueron realizados por urnietarras. Las reclamaciones realizadas giraron en torno a garantías, productos defectuosos, incumplimiento de plazos de entrega, facturación, publicidad engañosa, montajes inadecuados, incumplimiento contractual y devoluciones, entre otros.

Contacto

- **Responsable del servicio:** M^a Ángeles Ormazabal Otegi
- **Dirección:** Sandiusterra 1- 20120 Hernani (edificio Servicios Sociales)
- **Teléfonos:** 943 55 78 54 - 943 55 26 10
- **Correo electrónico:** marian-o@hernani.eus
- **Horario de oficina:** de lunes a viernes 8:30-14:00



Udalekuak 2022: IZENA EMAN APIRILAK 25 MAIATZAK 6 BITARTEAN

Urnietako Udalak Udalekuak antolatu ditu euskaraz aurtengo udarari begira ohiko moduan. Eguzkitan blai! eta kirol Udalekuak eskainiko dira umek atsegín dituzten aisi ekintza desberdinak garatuko direlarik.

EGUZKITAN BLAI!

Noiz ospatuko dira Udalekuak?

Ekainaren 27tik uztailaren 29ra, 5 txandatan.

Zein ordutegi izango da?

10:00etatik 13:00etara.

Zaintza zerbitzua eskainiko da?

Bai. Zaintza udalekuaren ordutegiekin osatu ahal izango da 8:30etik 13:30era ordu erdiko frakzioetan.

Nork har dezake parte?

2010-2018 urteen bitartean jaiotako haurrek har dezakete parte.

KIROL UDALKUAK

Noiz ospatuko dira Udalekuak?

Ekainaren 27tik uztailaren 29ra, 3 txandatan.

Zein ordutegi izango da?

10:00etatik 13:00etara (astean bi egunetan 9:30etik 13:30era).

Zaintza zerbitzua eskainiko da?

Bai. Zaintza udalekuaren ordutegiekin osatu ahal izango da 8:30etik 13:30era ordu erdiko frakzioetan.

Nork har dezake parte?

2010-2018 urteen bitartean jaiotako haurrek har dezakete parte.

Zein epe eskainiko da bi udalekuetan izena emateko?

Apirilaren 25etik maiatzaren 6ra bitarte.

Nola eman daiteke izena?

Ondorengo bide hauen bitartez gauzatu daiteke izen ematea:

- Lekaio kultur etxean.
- www.urnieta.eus

Colonias 2022: INSCRIPCIONES DEL 25 DE ABRIL AL 6 DE MAYO

El Ayuntamiento de Urnieta ha organizado colonias en euskera de cara al verano de este año. Se ofrecerán las colonias deportivas y Eguzkitan blai, donde se llevarán a cabo diferentes actividades de ocio del agrado de los niños y de las niñas.

EGUZKITAN BLAI

¿Cuándo se celebrarán las colonias?

Del 27 de junio al 29 de julio en 5 turnos.

¿Cuál será el horario?

De 10:00 a 13:00 horas.

¿Se va a ofrecer el servicio de guardería?

Sí. La guardería se podrá completar con los horarios de las colonias de 8:30 a 13:30 horas en fracciones de media hora.

¿Quién puede participar?

Pueden participar los niños y niñas nacidas entre 2010 y 2018.

COLONIAS DEPORTIVAS

¿Cuándo se celebrarán las colonias?

Del 27 de junio al 29 de julio en 3 turnos.

¿Cuál será el horario?

El horario será de 10:00 a 13:00 horas (dos días a la semana de 9:30 a 13:30 horas).

¿Se va a ofrecer el servicio de guardería?

Sí. La guardería se podrá completar con los horarios de las colonias de 8:30 a 13:30 horas en fracciones de media hora.

¿Quién puede participar?

Pueden participar los niños y niñas nacidas entre 2010 y 2018.

¿Qué plazo se va a ofrecer para apuntarse a las colonias de verano?

Del 25 de abril al 6 de mayo.

¿Cómo se puede inscribir?

La inscripción puede realizarse a través de las siguientes vías:

- Casa de cultura Lekaio.
- www.urnieta.eus

Bidaiateka lehiaketa Buruntzaldeko gazteentzat



Urnietako Gazte Informazio Puntuak Bidaiateka lehiaketa jarriko du abian herriko gazteen mugikortasuna sustatzeko helburuz. Modu honetan, gazteek azken urte hauetan bizi izan dituzten esperientzia interesgarrien berri emateko aukera izango dute.

16 urtetik gorako Buruntzaldeko pertsonak

Buruntzaldeko edozein Udaletan (Urnietan, Hernani, Astigarraga, Usurbil, Andoain eta Lasarte) bizi, ikasi edo lan egiten duten eta 2006a baino lehenago jaiotako gazte bidaiatzaleek aukera paregabea dute haien bidaiaren bat ezagutzera emateko: nolako esperientzia izan zen, nola antolatu zuen bidaiak, zein ibilbide burutu zuen, zer ikusi eta ikasi zuen...

Aurkeztu 60 segundoko bideoa Instagram kontuaren bidez maiatzak 2-5 bitartean

Lehiaketa Instagram bidez egingo da eta bi fase izango ditu: aurkezpen fasea eta azken fasea. Lehenengo fasean 60 segundoko bideoa igo beharko da bidaiaren aurkezpena

eginez. Horretaz gain, @gazteinfournieta profila jarraitu beharko da, feed-eko testuan @gazteinfournieta aipatu beharko da eta #BidaiatekaUrnietan hastag-a erabili beharko da. Bestalde, aurten, KM0 saria egongo da Euskal Herrian egindako bidaiantzako. Sari horretara hautatu nahi dutenek feed-eko testuan #KM0 hastag-a erabili beharko dute. Aurkezpen fasean bideoa igotzeko epea maiatzaren 2an irekiko da eta maiatzaren 5ean itxiko da. Edozein bidaiak balioko du.

Maiatzaren 9 arte ahalik eta "atsegin dut" gehien lortzea gakoa

Ezarritako epean igotako bideoen arten maiatzaren 9 arte ahalik eta "atsegin dut" gehien lortzea izango da helburua, izan ere, "atsegin dut" kopuru handienak eskuratzen dituzten 3 bideoak izango dira azken fasera igaroko direnak. "Atsegin dut" kopuruan berdinketa suertatzen bada berriz, epaimahaiak erabakiko du berdindutakoen arten zein igaroko den azken fasera. Dinamika berdina jarraituko da KM0 sarirako ere.

Hautatuak gehienez 5 minutuko bideoa prestatu beharko dute maiatzaren 16rako

Azken fasean lehiatzeko hautatuak izaten diren pertsonen bidaiaren informazio za-

balagoa emanez gehienez 5 minutuko iraupena izango duen bideo bat prestatu eta bidali beharko dute gazteinformazioa@urnietan.eus helbidera. Horretarako azken eguna maiatzaren 16a izango dute.

Sari potoloak

Hiru bideo horiek @gazteinfournieta-ko instagram kontura igoko dira eta bideo irabazlea hautatzeko orduan ondorengo gauzak hartuko dira kontuan:

- Bistaratzekak
- "Gustatzen zait" kopurua.
- Epaimahaiaren puntuazioa: material grafikoaren kalitatea, azalpena, komunikazio trebetasunak, originaltasuna eta balorazio askea.

Hiru alor horietan puntu gehien batzen dituen bideoa izango da irabazlea eta sariak berriz ondorengoak:

- 1.postua: 250 euro
- 2.postua: 150 euro
- 3.postua: 100 euro
- KM0 saria: 150 euro

Animatu eta parte hartu Bidaiateka lehiaketan.

Instagram kontua sortu da Urnieta ezagutzera emateko

Urnieta eta gure herriko interes puntu guztiak ezagutzera emateko asmoz, eta udalerriko marka turistikoak sustatzen jarraitzeko xedez, Urnietako Udalak turismoari bideraturiko Instagram kontu bat sortu du komunikazio eta sustapen departamentuen bidez: @urnieta_turismoa.

Izan ere, Urnieta gune natural pribilegiatu batean kokatzen da eta erakargarritasun ugari ditu, Adarra eta Onddi bezalako bi mendi eder eta Muniskuegañako multzo megalitikoak, besteak beste. Horretaz gain, ostatu hartzeko aukera mordoa eskaintzen ditu, baita jatetxe eta sagardotegi ugari ere. Halaber, jarduera ugari egiteko aukera dago. Beraz, naturaz, gastronomiaz eta lasaitasunaz gozatu nahi dutentzat leku paregabea da.

Denetarikoa informazioa

Eskaintza hori guztia zabaltzea da @urnieta_turismoa kontuaren asmoa. Bertan alor horien gaineko informazioa zabaltzen joango da Udala pixkanaka. Helburu nagusi-

ria, Urnieta bisitatzera etorri nahi dutenentzat bertan topatu eta egin dezaketenaren gaineko informazioa zabaltzea da. Horretaz gain, herritarren interesekoa izango den informazioa ere topatu ahalko da. Kontuaren barruan ondorengo atalak sortu dira:

- **Zuen argazkiak:** Urnieta bisitatzera etortzen direnek "#URNIETA" edo "#URNIETABIZI" *hashtag*-a erabilia argazkiak ipintzeko aukera dute.
- **Jarduerak:** turismo alorrean interesgarri izan daitezkeen ekintza edo eskaintza turistikoak topatu ahalko dira.
- **Txotx:** Urnietako sagardotegien inguruko albiste eta argazkiak txertatuko dira. Bestalde, beraien eskaintzaren berri emango da.
- **Sarobe:** Saroben garatzen diren ekintza kulturalen berri emango da. Gipuzkoan



erreferente handi bat da Sarobe Arte Eszenikoen sektorean.

- **Landetxeak:** Urnietako landetxeen inguruko albiste eta argazkiak ipiniko dira. Halaber, beraien eskaintzaren berri emango da.
- **Bitxikeriak:** Urnietako historiarekin eta kulturarekin zerikusia duten galderak egiten dira. Horrela, ikasteko eta gure herriko kontu desberdinak modu dibertigarri batean ezagutzeko aukera ematen da, erantzunak unean bertan ezagutzen direlarik. Esate baterako, zein mendekoa den Azkortekeko gurutze santuaren tailua.

Duela hilabete batzuk webguneko turismo atala berritu ostean, beste bultzada bat eman nahi dio Udalak herriko proiektuari. Hala, @urnieta_turismoa kontua jarraituz eta Urnieta deskubritzera animatzen ditu sare sozial horretako erabiltzaileak.

Cuenta de Instagram para dar a conocer Urnieta

Con el objetivo de dar a conocer Urnieta, de difundir todos los puntos de interés de nuestro municipio y de seguir promocionando la marca turística de la localidad, el Ayuntamiento de Urnieta ha creado una cuenta de Instagram orientada al turismo, a través de los departamentos de comunicación y promoción: @urnieta_turismoa.

Y es que Urnieta se sitúa en una zona natural privilegiada y cuenta con numerosos atractivos: dos preciosos montes como el Adarra y el Onddi, y el conjunto megalítico de Muniskuegaña, entre otros. Además, ofrece muchas posibilidades de alojamiento, así como numerosos restaurantes y sidrerías. También existe la posibilidad de realizar diversas actividades. Es, por tanto, un lugar único para las personas que quieren disfrutar de la naturaleza, la gastronomía y la tranquilidad.

Información de todo tipo

La intención de la cuenta @urnieta_turismoa es dar a conocer toda esta oferta. En ella el Ayuntamiento irá ampliando paulatinamen-

te la información sobre estos apartados. El objetivo principal es difundir información sobre lo que se puede encontrar y hacer para quienes quieran visitar Urnieta. Además, se ofrecerán datos de interés para la propia ciudadanía urnietarra.

Dentro de la cuenta se han creado los siguientes apartados:

- **Vuestras fotos:** las personas que visiten Urnieta tienen la posibilidad de subir fotografías utilizando el *hashtag* "#URNIETA" o "#URNIETABIZI".
- **Actividades:** se pueden encontrar las actividades y ofertas turísticas de mayor interés en el ámbito turístico.
- **Txotx:** se publicarán fotos y noticias relacionadas con las sidrerías de Urnieta. Asimismo, se informará sobre su oferta.
- **Sarobe:** se comunicarán las actividades culturales que se desarrollen en Sarobe.

Sarobe es un gran referente en Gipuzkoa en el sector de las artes escénicas.

- **Casas rurales:** se publicarán fotos y noticias relacionadas con las casas rurales de Urnieta. Por otro lado, se informará sobre su oferta.
- **Curiosidades:** se hacen preguntas relacionadas con la historia y la cultura de Urnieta. De este modo, se ofrece la posibilidad de aprender y conocer de una manera divertida y sencilla diferentes cuestiones sobre nuestro pueblo, conociendo las respuestas al momento. Por ejemplo, de qué siglo es la talla del cristo de Santa Cruz de Azkorte.

Tras renovar la sección de turismo de la página web hace unos meses, el Ayuntamiento quiere dar un nuevo impulso a la proyección del pueblo. Así, anima a las personas usuarias de esta red social a seguir la cuenta @urnieta_turismoa y a descubrir Urnieta.

NEREA ARRUTI

“Badakit nire lehen urtea dela, baina nire asmoa Pentatloia irabaztea izango da”

Nerea Arruti urnietarra lehiaketak eta erronkak maite dituen kirolari amorratua da. Judoan maila altuan aritu zen urte askoan, El Conquistador saio entzutetsuan parte hartu zuen iaz, eta, berriki, Urrezko Binakako Aizkolari Txapelketa irabazi du. Orain berri, pentatloia du begiz jota.

Nerea Sorondorekin batera Urrezko Binakako Aizkolari Txapelketa irabazi zenuen Azeptian. Zer sentitu zenuen?

Lasaitasuna. Nire lehen txapelketa zen aizkoran, Nerea Sorondo txapelduna da eta presio handia nuen irabazi egin behar genuelako. Halere, gozada bat izan zen berekin bikote osatzea.

Finalerdia Urnietan jokatu zen. Berezia izango zen herritarren aurrean lehiatzea.

Jende ezaguna ikusten hasi nintzen eta normalean baino urduriago jarri nintzen. Momentu batean aizkorak alde egin zidan, hori ez zait inoiz gertatu entrenamenduetan. Dena den, jarraitu egin nuen, kanporaketa irabazi genuen eta ondo amaitu nuen.

Noiz eta nola hasi zinen aizkoran?

Orain dela 5 hilabete inguru hasi nintzen. Nik crossfit-a egiten dut. Egun batean Gipuzkoako harri eskola etorri zen erakustaldi bat egitera, harria probatu genuen, eta beraiekin joateko esan zidaten. Betidanik izan dut buruan pentatloia egitea eta galdetu egin nien momentu egokia zela ikusi nuelako. Pentatloian 5 lan egin behar dira, aizkora, harria, txingak, giza proba eta korrika. Gabriel Saralegirekin entrenatzen hasi nintzen eta aizkoran zentratu gara, niretzat lanik zailena delako eta hor markatzen delako diferentzia handiena.

Aizkoran alderdi fisikoaz gain, teknikoak garrantzi handia du.

Teknika da garrantzitsuena. Nahiz eta indarra eta fisiko on bat izan, teknikarik ez baduzu ez duzu ezer egingo. Nik hasieran oso gaizki ikusten nuen nire burua, segurtasunik gabe, baina pixkanaka gero eta hobeto nabil. Entrenamenduetan emandako



maila plazan ematea da helburua. Horregatik hartu nuen parte binakako txapelketan, ohitzen joateko. Orain, banako aizkora txapelketan parte hartuko dut.

Noiz jokatu da Pentatloia? Eta zein izango da zure helburua?

Ekainean izango da binakako txapelketa eta irailean banakakoa. Oraindik ez naiz denborak kontrolatzen hasi, baina nire helburua beti izaten da dudan guztia ematea eta irabaztera joatea. Badakit nire lehen urtea dela baina nire asmoa irabaztea izango da. Gero lortzen ez badut ez da ezer pasako, baina hori da nire mentalitatea.

Aurretik urte mordo aritu zinen judoan eta oso maila onean gainera.

Mari Jose Sardon izan zen nire entrenatzailea. Hasieran, Urnietan entrenatzen nuen, eta, gero, Usurbilera joaten hasi ginen maila handiagoaren bila. Madrileran ere joaten nintzen entrenatzera Espainiako selekzioarekin eskolako egun batzuk galduta. Esperientzia politak bizi izan nituen.

Eta emaitza onak lortu ere bai. Txapelketaren bat gogoratzen duzu bereziki?

Europako Kopa bat irabazi nuen Coimbran, oso berezia izan zen. Frantzia ere irabazi nuen txapelketaren bat eta Espainia mailan normalean bigarren-hirugarren postuetan ibiltzen nintzen.

Beste erronka garrantzitsu bat El Conquistador telebista saiokoa izan zen.

Esperientzia polita eta desberdina izan zen. Jende oso gutxi du horrelako esperientzia bat bizitzeko aukera. Nire lagun batek animatu ninduen izena ematera. Korrika egindako bideo bat grabatu genuen eta berak bidali zuen. Ez nuen uste deituko nindutenik.

Esperientzia gogorra izango da ezta?

Telebistan ikusten dena baino askoz gogorragoa da. Jan gabe eta lo egin gabe egotea ez da batere erraza, moskitoek pilo bat pikatzen dute eta ordu asko pasa behar dira ezer egin gabe. Psikologikoki ondo prestatuta egon behar da. Nire kasuan gainera, esperientziaren azken parte oso gogorra izan zen. Papiloma bat izan nuen hirugarren egunetik eta sentsazio gazi-gozoarekin irten nintzen.

Beraz, lesioak asko baldintzatu zintuen.

Bai. Programako lehen faseko taldekako probetan sufrituta bada ere maila ona eman nuela uste dut. Telebistan, han gertatzen denaren zati txiki bat ikusten da soilik eta jendea horrekin geratzen da. Eman zuten sentsazioa da min pixka batekin utzi nuela programa, baina arazoa handia zen eta okerrera zijoan. Itzulitakoan ia 3 hilabete egon nintzen ia ezer egin gabe papilomak nerbioa hartu zidalako. Podologoak esan zidan aberia handia zela. Pena eman zidan ilusio handiarekin eta asko entrenatuta joan nintzelako eta nire burua ondo ikusten nuelako.

Esan ohi da parte hartzaileak betiko markatzen dituen esperientzia bat dela.

Jende asko ezagutzeko balio izan zidan eta gure artean harreman berezia sortu da. Askotan hitz egiten dugu oraindik eta noizean behin geratzen gara. Horretaz gain, hemen ditugun gauza guztiak gehiago baloratzeko balio du: familia, lagunak eta erosotasun guztiak.

Emakume erronkazalea izanda zer iruditzen duzu etorkizunari begira?

Momentuz pentatloian zentratuta nago, gero ikusiko dugu.

Ikastola

"Artea Ikasbide" Hezkuntza programa Egape Ikastolan

Guggenheim Bilbao Museoaren Artea ikasbide ekimenean parte hartzen ari dira Egape Ikastolako LH 4.mailako ikasleak.

"Artea Ikasbide" programa Lehen Hezkuntzako eskola-curriculumeko gaiak indartzeko artea baliatzen duen hezkuntza-programa da, betiere modu original eta pertsonalean. Programa honetan artean ibilbide luzea eta irakasle-lanetan eskarmentu handia duten artistek hartzen dute parte. Saio horietan, ikasgai ezberdinetan landutakoa sakontzeko bide emango duten zeharkako proiektuak planteatuko dituzte ikasgelan, diziplina anitz barnertzen dituen ikuspegi zabalez egin ere, eta errealtatea deskubritzeko, aztertze eta ulertzeko tresna moduan erabiliko dute artea. Aurtengo edizioan EAEko sei ikastetxe hartuko dute parte, eta tartean da Egape Ikastola.

Egape Ikastolako ikasleekin Maider Lopez artistak dihardu eta helburu nagusia ikasleek ingurunea ezagutzea eta bere



sorkuntza-prozesuetan parte hartzea bultzatzea du. Lan egiteko moduak ikasleak pentsatzera eramaten ditu, baloratzea, aukeratzea, probatzea, zalantza egitera, dibertitzera, baita zenbaitetan galtzea eta, jakina, huts egitera ere, huts egin gabe ez baitago aurrerabiderik. Bide horretan eta ikasturtean zehar egindakoa plazaratze aldera, tailer hauetan sortutakoa Guggenheim museoan jarriko dute erakusgai ikasturte bukaeran, ikasleak protagonista izango diren erakusketa, ez-bairik gabe.

El alumnado de 4º de Primaria de Egape Ikastola participa en la iniciativa "Aprendiendo a través del arte" del Museo Guggenheim Bilbao.

El programa "Aprendiendo a través del arte" es un programa educativo que utiliza el arte para potenciar las materias del currículo escolar de la Educación Primaria de forma original y personal. Participan artistas con una larga trayectoria en el arte y una dilatada experiencia docente. En estas sesiones, plantearán proyectos transversales que permitan profundizar en lo trabajado en las diferentes materias, con una visión amplia y multidisciplinar, y utilizarán el arte como herramienta para descubrir, analizar y comprender la realidad. En esta edición participarán seis centros escolares de la CAV, entre los que se encuentra Egape Ikastola.

Con nuestro alumnado colabora la artista Maider López y tiene como objetivo principal que los alumnos y alumnas conozcan el entorno y se involucren en sus procesos creativos. La forma de trabajar lleva al alumnado a pensar, a valorar, a elegir, a probar, a dudar, a divertirse, incluso a perder a veces y, por supuesto, a equivocarse, porque sin equivocarse no hay progreso. Con el fin de sacar a la luz lo realizado a lo largo del curso, la exposición creada en estos talleres se exhibirá al final del curso en el Guggenheim, sin duda una muestra en la que los alumnos y alumnas serán los protagonistas.

Magale Ikastetxea

Ukrainarako material kopuru handia jaso du Magale Ikastetxeak

Guraso, irakasle eta ikasleak buru-belarri aritu dira produktuak biltzen, 'SOS Ukraina Zumaia' elkartearekin koordinaturik. Era berean, ikasleekin gerren eta bakearen inguruko lanketa egin dute klasean. Oso pozik dira denak, bi astetan material kopuru izugarria jaso dutelako.

Magale Ikastetxeak erantzun bizkorra eta eraginkorra izan du 'SOS Ukraina Zumaia' elkartearen deia men eginda. Izan ere, azken bi asteotan material bilketa berezia egin dute eskolan. Irakasle batek ideia aipatu eta Zuzendaritza bete-betean sartu zen ekimenean.

Naroa Leonet irakaslearen esanetan, "Uda oro ukrainar haurrak ekartzen ditugu Euskal Herrira. Horregatik, bilketaren gaia komentatu nion Zuzendaritzari. Oso ondo iruditu zitzairen, eta buru-belarri hasi ginen: lehenik, kartelak sortu zituzten



ikasleek, zergatik sortu zen gerra landu ondoren. Izan ere, gerra Ukrainan soilik ez dagoela ere azaldu genuen, baina kasu honetan aukera zuzena genuela laguntzeko. Era berean, zirkularra bidali genien gurasoei materiala eskatzeko eta ikasleek material hori gelara ekartzeko".

Hain zuzen, higiene-produktuak, pioxihalak eta haurrentzat beharrezkoak diren produktuak batu zituzte. Baita barruko arropa termikoa, neguko arropa, esku-

larruak eta galtzerdi termikoak ere. Honez gain, ezin ahaztu lo-zakuak, biziraupen-mantak, botila termoak, kanpin-labeak, metxeroak, pospoloak, elektrizitate-sorgailuak, kandelak, linternak, pilak... Azkenik, elikadura arloan, latak, barratxo energetikoak edota irautzen ez den edozein janari.

Hala, ideia xume gisa hasi zen, baina material bilketa handian bilakatu zen ekimena egun gutxitan. "Erantzuna izugarria izan da. Hasieratik taldeak garbi izan du helburua bildutako guztia era egokian erabiltzea izango zela, eta horrek abiadura ere eskatzen zuen. Horregatik, kanpaina ziztu bizian osatu dugu, premiazkoa zen materiala eskatuta soilik. Erantzuna oso azkarra eta paregabea izan da, Urnietatik kanpo eta eskolarekin zerikusirik ere ez zuen jendea etorri zaigulako artikulua ekartzera, sare sozialen bitartez ikusi zutelako", dio Leonetek pozik.

ZERGATIK EROSI URNIETAN? RAZONES PARA COMPRAR EN URNIETA

- > **Tratu hurbila eta pertsonalizatua**
Trato cercano y personalizado
- > **Hurbiltasuna**
Proximidad
- > **Kalitatezko produktuak**
Productos de calidad
- > **Bizitza eta giroa gure kaleetan**
Vida y ambiente en nuestras calles
- > **Lanpostuak sortzen dira**
Se generan empleos

URNIETAKO KZ-GUNEA

943 023 682 · www.kzgunea.eus

APIRILEKO ORDUTEGIA HORARIO DE ABRIL 16:00-20:00

ASTELEHENETIK OSTIRALERA HILABETEKO LEHEN HAMABOSTALDIAN
DE LUNES A VIERNES LA PRIMERA QUINCENA DEL MES

Komunitate birtualak:

Zure elkartearen doako webgunea sortzeko aukera eskaintzen dizugu.

IT Txartela:

Teknologia berrien gaineko ezagupideen egiaztapena.

IKASTAROAK (ASTELEHENETIK OSTIRALERA):

Oinarrizko Internet: Internet mundua, PC bat ezagutu, nabigazioa, posta elektronikoa... eta gehiago.

Software libre: ofimatika mundua, software librearen baldintzak, baimenak eta abar.

Sare Sozialak 2.0: sare ezberdinak erabiliz, komunikatu eta zure dokumentuak konpartitu.

Irudia: imaginazioa esna ezazu grafiko aplikazioak erabiliz.

Google Apps: zure eta zure enpresaren antolakuntza errazteko tresnak.

Smartphoneak eta tabletak: zure gailuak eta aplikazio ospetsuenak erabiltzen ikasi.

Programazioa eta garapena: programazio tresnak erabiltzen ikasi.

Comunidades virtuales:

Te ayudamos a crear una página web gratuita para tu asociación.

IT Txartela:

Certificación de conocimientos en nuevas tecnologías.

CURSOS (DE LUNES A VIERNES):

Internet básico: entra en el mundo de Internet; qué es un PC, correo electrónico... y mucho más.

Software libre: ofimática, características del software libre, tipos de licencias, etc.

Redes Sociales 2.0: comunícate y comparte tus documentos a través de las diferentes redes sociales.

Imagen: da rienda suelta a tu creatividad con las aplicaciones gráficas de código abierto.

Google Apps: herramientas que facilitarán tu organización personal y la de tu empresa.

Smartphones y tablets: aprende a utilizar tus dispositivos y las aplicaciones más populares.

Programación y desarrollo: aprende a utilizar herramientas de programación.

IKASTAROAK / CURSOS

BIDEOKONFERENTZIA VIDEOCONFERENCIA

Online izapideak Osakidetzarekin.

Tramites online con Osakidetza.

28-29 11:00-13:00 Castellano

Google Argazkiak. Antolatu hodeian

zure argazki guztiak. Google Fotos.

organiza todas las fotos en la nube

12-13 16:00-18:00 Castellano

Zure bidaia planifikatu. Planifica tu viaje.

21-22 16:00-18:00 Castellano

Libre Office Impress. Zure aurkezpenak

sortu. Libre Office Impress. Crea tus

presentaciones.

19-20 11:00-13:00 Castellano

Google Drive bildu eta partekatu zure

artxiboak. Google Drive. Almacena y

comparte tus archivos

12-13 11:00-13:00 Euskara

Instagram. Partekatu zure argazki eta

bideo onenak. Instagram. Publica tus

mejores fotos y vídeos.

19-20 11:00-13:00 Castellano

Erosketa eta ordainketa segurua Interneten.

Compra y pago seguro en Internet.

25-26 13:00-14:00 Castellano

URRUNEKO HEZKUNTZA FORMACIÓN A DISTANCIA

Komunikazio ez-presentzialerako tresnak.

Herramientas para Comunicación No Presencial.

2022/04/25 -2022/05/04 10 ordu Euskara

AGENDA

APIRILA / ABRIL

ANTZERKIA "KASILDA BUKATZEN EZ DEN SUA"

- **Eguna:** apirilak 10
- **Ordua:** 19:00
- **Lekua:** Sarobe
- **Hizkuntza:** euskara
- **Sarrera:** 5 euro (Sarobe eta bibe.me)

Sinopsia: Kasilda Hernaez Vargas emakume iraultzaile euskaldunak guda zibilean eta bere bitzita osoan zehar ideia libertarioen eta bizimodu natural baten alde borrokatu zuen.

Antzezlan honetan bere bizipenetatik bidaiatuko dugu sentimendu hori jarraitzera bultzatu zuena bilatuz.



EZOHIKO MUSIKALA: "ITSATSITA"

- **Eguna:** apirilak 21
- **Ordua:** 20:00
- **Lekua:** Sarobe
- **Hizkuntza:** euskara
- **Sarrera:** 5 euro (Sarobe eta bibe.me)

Sinopsia: Neska batek eta mutil batek diskoteka batean elkar ezagutzen dute eta kimika sortzen da. Gauza batek bestea dakar: baietz, ezetz... eta azkenean baietz: sutsuki enroilatzen dira bainu batean. Nori ez zaio gertatu?

Baina istorio hau ez da amaitzen gazteen, musikaren eta alkoholaren gaueko istorio asko amaitzen diren bezala: gure protagonistek espero ez zuten arazo txiki batekin egingo dute topo. Medikuek "penis captivus" deitzen diote, eta topaketa sutsu honen amaiera ez da bainu batean izango, ospitale bateko larrialdi-gelan baizik.

Han hasten da benetan gure historia. Mutiko eta neskak, hitzez hitz itsatsita egongo direnez, elkar ulertzera eta elkar ezagutzera kondematuta egongo dira Larrialdietako Boxean itxaronaldi luze horretan. Itxaronaldia tentsioz betea, zirrargarria eta oso komikoa izango da, baina batez ere... musikala!



HITZALDIA: "LA VIEJA" Euskal Fondoko kooperazio proiektua Kuban

- **Eguna:** apirilak 28
- **Ordua:** 18:30
- **Lekua:** Lekaio
- **Hizkuntza:** euskara
- **Sarrera:** doakoa
- **Hizlaria:** Juanma Balerdi, Euskal Fondoko zuzendaria

Sinopsia: Euskal Fondoa Toki Erakunde Kooperanteen Elkarte da. Urnieta Udalak urtero sinatzen ditu lankidetzak hitzarmenak elkartarekin herrialde desberdinetan garapenerako lankidetzarekin zerikusia duten programak aurrera eramanez ahal izateko eta garapen ekonomiko eta sozialerako edota sentsibilizaziorako egitasmo eta programak sustatzeko.

Proiektu horietako bat Kuban garatzen da, adinek helduentzako arreta arloan, zerbitzu dibertsifikatuagoa eta kalitate handiagokoa eskaintzeko xedez. Hitzaldi honetan proiektu horren gaineko azalpenak emango dira.

